

KRONIKA GETXO ETORKIZUNA - BRT MENDITARRAK 16/03/24

Larunbat honetan BRTko gazteak Getxora joan ziren, liga erregularreko etxetik kanpo zuten azken partida jokatzera. Partida zaila izan zen nafarrentzat, 29-5.

Jokoa intentsitate handiz hasi zen bi taldeen aldetik. Bertakoek hartu zuten ekimena, baina defentsa sendo batekin erantzun zuten jokalaria baztandarrek. Hala ere, erresistentzia horrek ez zuen asko iraun, 12 minutu buruan bizkaitarrek lehen entsegua egitea lortu baitzuten. Denborak aurrera egin ahala, partidak dinamika berean jarraitu zuen: Getxok baloia ondo mugitzen zuen, eta horrek BRTren defentsa zaildu zuen. Lehen zatia 17-0ko emaitzarekin akitu zen Getxoren alde. Atsedenaldira iristean, baztandarrek partiduaren norabidea aldatzen saiatu ziren jokalaria berriak sartzen, taldeari freskotasuna ekarri nahian.

Bigarren zatia lehena baino lehiatuagoa izan zen. BRTk 10 minutuko nagusitasuna izan zuen aurkarien zelaian, eta Haize Arrietak entsegu bat lortu zuen. Getxoren bi entsegurekin amaitu zen partida, ordea, 29-5eko emaitzarekin.

Arientzat porrota zaila da irenstea, ez baitute punturik lortu eta sailkapeneko laugarren postura jaitsi baitira. Galtze honen gakoak taldearen defentsa eta diziplina faltak izan ziren, baita Getxoren eraso harriskutsuak ere, ahulgune horiek probexten jakin baitzuen.

Bereziki goraipatu nahi dut, Kaiet Iriartek, azken orduko ezusteko baten ondorioz taldea estutasunetik erreskatatu zuenaren ekarpen baliotsua.

CRÓNICA GETXO ETORKIZUNA - BRT 16/03/24

Este sábado el BRT se desplazó a Getxo para jugar el último partido fuera de casa de la liga regular. Fue un partido difícil con un resultado negativo para los navarros, 29-5.

El partido comenzó con una gran intensidad por parte de ambos equipos. Los locales tomaron la iniciativa, pero los jugadores Baztandarras respondieron con una defensa sólida. Sin embargo, esta resistencia no duró mucho, ya que a los 12 minutos los vizcaínos consiguieron marcar su primer ensayo. Con el paso del tiempo, el partido continuó en la misma dinámica: el Getxo movía bien el balón, lo que complicaba la defensa del BRT. La primera parte concluyó con un marcador de 17-0 a favor del equipo local. Al llegar al descanso, el BRT intentó cambiar el curso del partido con algunos cambios tácticos, buscando aportar frescura al equipo.

La segunda mitad resultó más disputada que la primera. El BRT disfrutó de 10 minutos de dominio en el campo rival, que culminaron con un ensayo de Haize Arrieta. Sin embargo, el partido concluyó con dos ensayos del Getxo, dejando el marcador en 29-5.

Es una derrota difícil de digerir para el BRT, ya que no sumó ningún punto y ha descendido al cuarto puesto en la tabla. Las claves de esta derrota fueron las imprecisiones defensivas y disciplinarias del equipo, así como la eficacia ofensiva del Getxo, que supo capitalizar estas debilidades.

Quisiera destacar especialmente la valiosa contribución de nuestro conserje, Kaiet Iriarte, quien rescató al equipo de un aprieto debido a un imprevisto de último minuto.